

**2004KO APIRILAREN BATEAN UDAL PLENOAK
EGINDAKO EZOHIZKO BATZARRALDIKO AKTA.-**

Zumaiako hirian, bi mila eta laugarren urteko apirilaren batean, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ezohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU Jauna.

Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.

Lide AMILIBIA BERGARETXE Anderea.

Mikel OLAIZOLA ELOSUA Jauna.

Andoni ETXANIZ OSA Jauna.

Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA Jauna.

Mikel GARATE GOLMAIO Jauna.

Abel YEREGUI SASIAIN Jauna.

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jauna.

Cristina FORCADA UNANUE Anderea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- LURZORU ERRESERBA PROIEKTUA ETA OTALORA DESJABETZA, TSJPV-ko EPAIARI EGOKITZAPENA.

Bilera eratutzat eman ondoren, Alkate Lehendakariak gai korapilatsua dela aitortzen du eta ahalik eta azalpen garbienak ematen saiatuko dela adierazten du.

Udal Batza Osoak 2.000-ko ekainaren 22-an "Otalora-Basusta. Udal lur zoru ondarrera atsekitzeko Lur zoru erreserba Proiektua" onartu zuen. Zenbait lur jabeek helegitea tarteratu zuten akordio honen aurka Eusko Autonomi Elkarteko Auzitegi Gorenaren aurrean.

Bien bitartean Zumaiako Udalak Otalorako babes ofizialeko etxebizitzak egin ahal izateko desjabetza espedienteari eman zion hasera 2.001eko martxoak bateko Udal Batza Osoko akordioz, "causa expropiandi" gisa Lur zoru erreserba proiektua hartzen zuelarik.

Autonomi Elkarteko Auzitegi Gorenak lur jabeek tarteratutako helegitea partzialki ontzat eman zuen eta zentzu honetan izan zen luzatu zuen epaia. Besteak beste, 2.000-ko ekainaren 22-ko Udal Batza Osoaren akordioa deuseztatzea. Hau da Lur zoru erreserba proiektua onartzen zuena.

Udalak epai horren aurka Kasazio helegitea tarteratu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean.

Gure abokatuek, Auzitegi Gorenak helegitea onartuko duenaren zalantza azaldu digutenez.

Eta desjabetza espedientea Lur Zoru Erreserba proiektuan oinarritzen denez zera proposatzen da: Auzitegi Gorenako helegiteaz desistitzea, Autonomi Elkarteko Auzitegi Gorenako epaia ejekutatzea eta ondorioz desjabetza espedientea egokitzea.

Gorporaziokideek beraien kezkak eta zalantzak azaltzen dituzte.

IU-EB-ko ordezkaria eta Alkatearen artean eztabaida sortzen da Bases Ofizialeko etxebizitzaren promozioari buruz. Alkateak dio Babes Ofizialeko etxebizitzak ez direla soilik Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailaren ekimena, baizik Udalek ere sustatu ditzaketela.

IZUSTARRIkoek epaia aztertu nahiko lutekela diote. Eta ondoren Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko desjabetza nahitaezkoa den galdetzen dute.

EAJtik erantzuten da batetik hirigintza Batzordean gaia aztertu zela eta bestetik Arau Subsidiarioen berrikusketan Puntanuetako gunearen hirigintza garapenerako desjabetza gestio sistema ezartzen dela. Hala ere kasu guztietan batean ezik aldean adostasunera iritsi gara desjabetza espedienterik gabe.

**UDAL ONDARERAKO LURZORU ERRESERBA, 20/98 Legearen
15,1 ARTIKULUAN OINARRITUTAKO DESJABETZE-
ESPEDIENTEA**

UDAL ONDARERAKO LURZORU ERRESERBA

200-06-22ko Osoko Bilkuran, udal ondarerako lurzoria erreserbatzea onartu zen behin betiko. Otalora-Basusta.

Otalora-Basustako lurzoria erreserbatu zen udalak ekimen publikoko jardueretarako erabili ahal izateko. Batez ere, etxebizitzak eraikitzeko, babes ofizialekoak nagusiki. (Hori guztia Lurzoru Ondare Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarreko 20/1998 Legean ezarritakoaren arabera).

DESJABETZE-ESPEDIENTEA

2001-03-01eko Osoko Bilkuran, desjabetzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zen, erreserbatutako lurak jabeen borondatez eskuratzen jarraitzeari utzi gabe.

Izan ere, Proiektua onartuta egoteak lursail horiek desjabetu eta udalaren esku uzteko ahalmena ematen du (20/98 Legearen 15.1 artikulua arabera).

“Udal ondarerako erabili ahal izateko, erreserbatutako lurzoru izendatzeak berarekin dakar sialok erabilera publikorako lurzoru izendatzea eta desjabetutako lurzoruak okupatu beharra”.

**(7479/03) KASAZIO ERREKURTSOA EZ ONARTZEA ETA
EHJANren EPAIA BETETZEA**

2003-0512an emandako epaiaren arabera, EHJANak baliogabetu egin zuen Lurzoruaren Udal Ondarearen Proiektua onartzeko, 200-06-22an udalak hartutako erabakia.

Epai horrek Juan María Echave Galarragarengan bakarrik du eragina, bera baita udalarekin akordiorik lortu ez zuen jabe bakarra. Udalarekin akordioa lortu zuten lur-jabeengan ez du eraginik. Izan ere, Auzitegi

Goreneko Jurisprudentziak ezarritakoaren arabera, horientzat akordioa bete beharrekoa da aurretik onartuta dutelako.

Epai horren kontra kasazio errekurtsua aurkeztu du udalak Auzitegi Gorenean.

INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZAKO ARAUDIAREN ARABERAKO DESJABETZE ESPEDIENTEA

Puntuana-2. SEKTOREKO Arau Subsidiarioen aldaketa puntualak (Diputatuen Batzordean 2001-12-11n onartutakoak) eta Plan Partzialaren aldaketak (2001-12-27an bein betiko onartuak) 16. Hirigintzako Eremurako (Puntuana-2. Sektorerako) jarduera sistematzat desjabetzea ezarri zuten. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2004-02-17ko Diputatuen Batzordean, ordea, behin betiko onartu zuen jarduera sistema hori ezartzen duen Zumaiako Arau Subsidiarioen atala berrikustea.

Goian aipatutako guztia oinarri hartuta, honakoa proposatu du; kasazio errekurtsua atzera botatzeko erabakia hartzea, Lurzorua Erreserbatzeko Proiektua onartzen zuen udal erabakia baliogabe uztea eta ondasun eta eskubideei nahiz erabilera publikorako izendapenari dagokionez, desjabetzeko akordioa indarrik gabe uztea. Desjabetzeko gainerako ekintzak, ordea, bere horretan uztea proposatu du.

Jurisdikzio Kontentzioso Administratiboa arautzen duen uztailak 13ko 29/98 Legeko (74, 104 eta 105 artikulua), Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen (66 art.) eta Hirigintz Gestio Erreglamendua onartzen den abuztuak 25eko 3288/1978 E.D-an xedatutakoarekin bat;

Bozketa eginik eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamaika gorporaziokideen aldeko hamar botuz (5 EAJ, 3 IZUSTARRI, 1 EA eta 1 PSOE) eta aurkako botu batez EB-IU-rena, ERABAKI DA:

LEHENENGOA: 2.003-05-12ko dataz, Euskal Autonomi Elkarteko Epategi Goreneko Kontentzioso Administratiboko Aretoko 2. Sekzioak emandako 383/03 epaiaren aurka, Zumaiako Udalak Epategi Gorenean tarteraturiko 7.479/03 Kasazio Helegiteaz uko egitea.

BIGARRENGOA: OTALORA-BASUSTA. UDAL LUR ZORU ONDARERA ATSEKITZEKO LUR ZORU ERRESERBA PROIEKTUA behin betiko izaeraz onartzen zuen 2.000-06-22ko datako udal akordioa deuseztatzea, aipaturiko epaiaren ebazpena exekutatuaz, eta indarririk gabe utziaz 2.001-03-01-eko akordioa, desjabetzaren ondasun eta eskubideen zerrendari dagokiona, utilitate publikoaren aitortzea, kontuan izanik, Puntanueta 2. Sektoreko Arau Subsidiarioen Aldaketa puntuala eta Zumaiako Arau Subsidiarioen berrikuspenak, sektore berdinari dagokionez, ejekuzio sistema bezala desjabetza finkatzen duela, desjabetzaren espedientearen gainerako izapide guztiak mantendu egiten dira, kontserbazio printzioaren baitan, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 66 art.-an xedatutakoarekin bat.

HIRUGARRENGOA: Balorazioaren ondorioetarako, desjabetzaren xede diren ondasun eta eskubide berrien erlazioa onartu hamabost eguneko jendaurreko agerraldi epe bat zabalduaz iragarkia Udaletxeko Iragarki Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuaz eta interesatueeri jakinarazpen pertsonalak eginaz, desjabetzaren erasandako eskubideen titularrek argitaraturiko zerrendan egon daitezken akatsak zuzendu ahal izateko edozein argibide aurkeztu dezaten helburuaz. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz jabeen zerrenda eta erasandako ondasun eta eskubideen deskripzio banakatua behin betikoz onartutzat kontsideratuko da. Interesatueeri gonbidapena luzatuaz adostasunean, prezio bat proposatu dezaten.

LAUGARRENGOA: Akordio hau legezko eran Juan Mari Etxabe Galarraga jaunari eta Azpeitiako Jabetza Erregistroari jakinarazi, dagokion ondorioetarako.

2. – UDALETXEKO ERREFORMA ETA ANPLIAZIOA ESLEITZEKO BALDINTZA PLEGUAK.

Alkate andereak ohizko baldintza Pleguak direla dio. Jarraian ezaugarriarik azpimarragarrien aipamen bat egiten du.

Kontratuaren xedea Arkitektoak egindako Proiektuaren 1etik-14ra doazen partidak dira eta 17garrena. Kanpo gelditzen dira 15, 16 eta 18. Partidak hau da: zoru teknikoak, altzaritegiak eta artxiboko konpaktuak.

Exekuzio epea 24 hilabetekoa da. Nahiz eta obraren finantziazioa hiru aurrekontutan banatuko den.

Lizitazio tipoa 2.971.558,39 €tako da ,494.425.714,27 pta.

Finantziarioari dagokionez, 2.004. ekitaldirako 780.000 €tako diru izendapena daukagu aurrekontuetan, 2.005 eta 2.006 garren ekitaldietarako 860.000 € ekitaldiko eta hala eta guztiz ere 471.558,39 €tako kreditu konpromezu bat onartu behar da lizitazio tipora iristeko.

Adjudikazio erizpideetan eskaintza ekonomikoari 55 puntu ematen zaizkio, pertsonalari, makinariari eta baliabideeri 15, esperientziari 15, obra exekuzioaren memoriari 10 eta epeen murrizketari 5. Guztira 100 puntu.

Alderdien hitz txandan **IZUSTARRI**-k zera dio, honelako kontratazio garrantzitsu batean Pleguak aztertu gabe onartzeko Plenora aurkeztea etzaigu ongi iruditzen. Gure ekarpenak egiteko aukera galtzen dugu eta ez zaigu egokiena iruditzen. Bozkatzeko hain garrantzitsua den gai batean Plegueri bi buelta ematerik ez dugu eduki. Formari bere garrantzia eman behar zaio

EAJ-tik zera erantzuten zaio denboraz juxtu gabiltzala aurtengo diru izendapena erabili nahi badugu eta gai honi buruz erabakitzeke beste pleno bat deitzea ez dela bidezkoa, garrantzitsua eta zer esana duena Proiektu tekniko delako kontuan izanik. Baldintza Pleguak ohikoak dira. Garrantzitsua Proiektua da ez lanak kontratatzeke modua.

PSOE-tik adostasuna azaltzen dute Baldintza Pleguekiko. Era guztietara bidezko jotzen dute datorren Hirigintza Batzorderako Baldintza Pleguak kideen artean banatzea.

EB-IU -ko zinegotziak informazioa atzerapenez iristen dela salatzen du eta gobernuan daudenak behin eta berriz abantailarekin jokatzen dutela.

Bozketa eginik eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamaika gorporkideen aldeko zazpi botuz (5 EAJ, 1 EA eta 1 PSOE-rena) , abstentzi batez EB-IUeta aurkako hiru botuz **IZUSTARRI**renak, **ERABAKI DA:**

LEHENENGOA: Zumaiako Udaletxeko Erreforma eta zabaltze lanen kontratazio espedientea onartzea eta aldi berean, kontratazioa arautuko duten Baldintza Plegu Ekonomiko Administratiboak eta Teknikoak.

BIGARRENGOA: Lehiaketa Publikoaren deialdia egitea onartzea, prozedura irekiz eta ohiko izapidaz. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara dadila, adjudikazio prozedura irekiaz.

HIRUGARRENGOA: 2.005 eta 2.006 -ko ekitaldietako gastu konpromezua 471.558,39 €tan gehitzea kopuru osoaren %50 ekitaldiko.

3.- 2003-KO LIKIDAZIOAREN KONTU EMAN.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak Alkate Dekretuz onartutako 2.003-ko LIKIDAZIOAREN BERRI ematen du.

Horretarako bi orri banatzen ditu eskema gisa azalpenak hobetoago ulertu daitezzen. Bata ekitaldiko emaitzena eta bestetik altxortegiaren gerakinena.

Gorporaziokideen artean 2.003ko likidazioaren emaitzei buruz eztabaidatzen da.

IZUSTARRI-koek zera adierazten dute urteko lehenengo Kreditu Aldaketa bidez 2.004ko aurrekontura diru ekarpen garrantzitsu bat egin zela.

PSOE-ri ere gerakinaren kopuru garrantzitsua deigarria iruditzen zaio.

EAJ-koek baietz erantzuten dute. Gehienetan obrak atzeratu direlako izan da hori. Hau da ihazko urtean amaitzea aurrirakusten genitun zenbait lan, Giza Baliabide Zentrua, Interpretazio zentrua ... atzeratu egin dira eta 2.003-an lan hauetarako izendatutako diru kopurua eta oraindik erabili ez dena 2.004ko ekitaldian txertatzen da.

Bestalde Fondo Foralaren ihazko likidazioaren arabera gehiago jaso dugu, Foru Aldundiak ere diru gehiago errekaudatu zuelako. Alderantziz Foru Aldundiak diru gutxiago jaso balu guri ere gutxiago banatuko liguke.

Eraikitzen denaren gaineko zergaren kontzeptuan ere aurrirakusia baino % 7gehiago jaso dugu. Zerga zuzenetan ere % 2-a gehiago. Egoera on honek ez du esan nahi datorren urteko ekitaldia ere horrelakoa izango denik.

	UDALA	SAN JUAN EG.	MUSIKA PATR.	BATERATUA
1.- Altxortegiko izakin likidoak 2003-12-31n	1.951.623,91	145.507,33	30.205,37	2.127.336,61
2.- Kobratugabeko saldoak 2003-12-31n				
Aurrekontuko zordunak	1.183.103,80	24.667,39	66.118,82	1.273.890,01
- aplikatu gabeko kobrantzak	0,00	0,00	0,00	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	24.803,38	0,00	0,00	24.803,38
3.- Ordaindu gabeko saldoak 2003-12-31n				
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	1.220.211,64	84.741,14	14.634,35	1.319.587,13
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak	659,98	0,00	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	147.493,88	7.093,69	0,00	154.587,57
4.- Altxortegi gerakin gordina (1+2-3)	1.791.165,59	78.339,89	81.689,84	1.951.195,32
5.- Saldo kobragaitzak:	182.820,09	0,00	0,00	182.820,09
6.- Altxortegi-gerakin likidua (4-5)	1.608.345,50	78.339,89	81.689,84	1.768.375,23
7.- Finantzaketa lotua duten gastuet.altxort.gerak.	0,00	0,00	0,00	0,00
8.- Gastu orokorretarako altxort.gerak.	1.608.345,50	78.339,89	81.689,84	1.768.375,23
+ Eusko Jaurlaritzako sarrera kompr. Giza Baliab. Zentr.	280.387,75	0,00	0,00	280.387,75
+ Diputazioako sarrera kompr. Giza Baliabideen zentroa	378.835,17	0,00	0,00	378.835,17
- Kreditu gerakinen txertaketa	-1.489.562,96	-5.080,80	0,00	-1.494.643,76
- 2004ko aurrekontuetan jarritako mailegua	-250.000,00	0,00	0,00	-250.000,00
ERABILTZEKO GELDITZEN DEN GERAKINA	528.005,46	73.259,09	81.689,84	682.954,39

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortziak eta berrogeita bost minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK